

**Hautes Kontabilitateei buruzko  
Irizpena (Eusko Legebiltzarrerako  
hauteskundeak 2016ko irailaren 25a)**

**Dictamen sobre Contabilidades  
Electoraes (Elecciones al Parlamento  
Vasco 25 de septiembre de 2016)**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK .....	5
SARRERA .....	6
I. ONDORIOAK .....	9
I.1 Lanaren zabalari mugak .....	9
I.2 Legeria betetzea .....	9
I.3 Diru-laguntza proposamena .....	9
II. Diru-laguntzak eta gastuen mugaketa .....	11
II.1 Hauteskundeetako emaitzak .....	11
II.2 Diru-laguntzen aurrerakinak .....	11
II.3 Hautesleei zuzenean eta pertsonalki bidaltzeagatiko diru-laguntza .....	12
II.4 Hauteskunde gastuen diru-laguntza .....	13
II.5 Gastuen gehienezko muga .....	14
III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK .....	15
IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK .....	17
IV.1 Eusko Alderdi Jeltzalea .....	17
IV.2 Euskal Herria Bildu .....	18
IV.3 Elkarrekin Podemos .....	19
IV.4 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) .....	20
IV.5 Alderdi Popularra .....	21
ABREVIATURAS .....	23
INTRODUCCIÓN .....	24
I. CONCLUSIONES .....	27
I.1 Limitaciones al alcance del trabajo .....	27
I.2 Cumplimiento de la legislación .....	27
I.3 Propuesta de subvención .....	27



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

II. SUBVENCIONES Y LÍMITE DE GASTOS .....	29
II.1 Resultados electorales.....	29
II.2 Adelantos de subvenciones.....	29
II.3 Subvención por envío directo y personal a los electores.....	30
II.4 Subvención gastos electorales.....	31
II.5 Límite máximo de gastos .....	32
III. DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES.....	33
IV. CUENTAS ELECTORALES.....	35
IV.1 Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco .....	35
IV.2 Euskal Herria Bildu.....	36
IV.3 Elkarrekin Podemos .....	37
IV.4 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	38
IV.5 Partido Popular.....	39

Vitoria-Gasteiz, a 9 de febrero de 2017

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 9a



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.

EAEHB Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea

ELHL 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.

TVCP/HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegia



## SARRERA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 149.3 artikulua araber, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskundearen kontabilitateari eta horietan jasotako sarrera eta gastuen justifikazioari buruzko irizpen arrazoitua eman behar du.

Lanaren mamia, indarreko araudiari jarraikiz, joan den 2016ko irailaren 25ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edota hauteskundeetako diru-laguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoen hauteskunde-kontuak egiaztatzea izan da; hona hemen aztergai izan ditugun alderdiak:

- 1.- ELHLren 140. artikulua hauteskunde sarrera eta gastuen kontabilitatea aurkezteko moduz zehazten dituen baldintzak bete direla.
- 2.- Irekitako edo gaitutako banku kontuak, Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordeari jakinarazitakoak (aurrerantzean AEHB), hautagaitzek diru-funtsak biltzeko eta hauteskunde gastuak ordaintzeko erabili dituztela egiaztatzea, ELHLren 141 eta 142.1 eta 2 artikuluek ezartzen dituzten berezitasunekin.
- 3.- Aurrez egindako hauteskunde gastuak ordaintzeko irekitako kontuen saldoen erabilera, bozketa ostean 90 eguneko epean (ELHLren 142.3 artikulua).
- 4.- Norbanakoek egiten dituzten ekarpenetan izena, helbidea eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen zenbakiaren ebidentzia dirua ezartzeko egintzan (ELHLren 143.1 artikulua) eta 145.4 artikulua adierazten duen ekarpen horien banakako muga gehiengo errespetatu dela egiaztatzea, 10.000 euroan ezarri dena.
- 5.- Alderdiak hauteskunde prozesua ordaintzeko emandako diru-baliabideen jatorria (ELHLren 143.3 artikulua).
- 6.- Hauteskunde-kontu korranteetara ondoko erakunde hauetatik fondoak ekartzeko debekua errespetatzea: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (ELHLren 145.1. artikulua).
- 7.- Atzerriko erakunde zein pertsonengandik edo Autonomia Erkidegoz kanpoko helbidea dutenengandik edo legezko ez diren jardueretatik fondoak ekartzeko debekua errespetatzea (ELHLren 145.2 eta 3 artikulua).
- 8.- Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zituzten hautagaitzei Eusko Jaurlaritzak emandako hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerapenetan gehiengo muga gordetzea. Aurreratutako kopuruak ezin gaitutako du hautagaitza horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako diru-laguntzaren % 30 (ELHLren 144.2 artikulua).
- 9.- Bigarren aurrerakinaren zenbatekoa hautagaitzek eskuratutako hauteskunde emaitzen araber dagozkien diru-laguntzen zenbatekoaren % 90en pareko izango da, hala dagokionean, aurreko ataleko aurrerakina murriztuz (ELHLren 144.7 artikulua).



10.- Hauteskunde gastuak egiaz kontratatu direla horretarako gaitutako aldian, hau da, hauteskundeak deitzen diren datatik hautagaiak izendatu arteko datara arte, ELHLren 146 artikuluan erabakitakoaren arabera.

11.- ELHLren 147 artikuluari jarraikiz legez finkatutako gastuetarako mugak betetzea, zeinak agintzen baitu inongo alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-taldek ezingo duela ezarritako mugak gaindituko dituzten hauteskunde gastuak egin. Segurtasun Sailburuaren 2016ko abuztuaren 17ko Agindua kopuru hori 1.297.684,73 eurotan finkatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hauteskunde barrutien multzoan aurkezten direnentzako.

Gainera, ELHLren 151.2 artikulua eta Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 2016ko abuztuaren 8ko Aginduaren arabera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta hauteskunde txartelak edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako hauteskunde gastuak euroko 0,23 euroekin lagunduko dira diruz dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147. artikulua aurreikusten duen mugaren baitan barne hartua egongo, betiere, atal honek aipagai duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatzen bada.

12.- Egindako gastuen justifikazioa, kontularitza, merkataritza eta zerga printzipio eta arauak agindutako gutxieneko betekizunak gordetzen dituzten agirien bitartez.

13.- Prentsa eta irratian, kartel eta publizitate hesietan publizitate kontzeptuan egindako gastuen mugak betetzeak, hurrenez hurren, ELHLren 75 eta 81. artikuluek ezarritako mugak gordetzen dituzten.

Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzkoa
- 5/1990 Legea, ekainaren 15koa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako buruzkoa.
- 6/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Institutuzionalari buruzkoa.
- Lehendakariaren 23/2016 Dekretua, abuztuaren 1ekoa, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitzen dituen.
- 2016ko abuztuaren 8ko Agindua, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena, 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzen dituen.
- Segurtasun Sailburuaren 2016ko abuztuaren 17ko Agindua, 2016ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan hauteskunde-gastuak mugatzeko ezarritako kopuruak zehazteari buruzkoa.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Hona hemen 2016ko irailaren 25ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia edo hauteskunde diru-laguntzaren aurrerakina eskuratu duten alderdi politikoak:

ALDERDI POLITIKOA / HAUTESKUNDE KOALIZIOA	SIGLAK
Eusko Alderdi Jeltzalea .....	EAJ-PNV
Euskal Herria Bildu.....	EH Bildu
Elkarrekin Podemos .....	Podemos-Ahal dugu/Ezker Anitza-Izquierda Unida/EQUO
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	PSE-EE (PSOE)
Alderdi Popularra.....	PP

Ez da hautagaitzarik izan ordezkartzarik eskuratu ez eta hauteskunde diru-laguntzaren aurrerakinik eskatu duenik.



## I. ONDORIOAK

### I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik (Estatukoari). Honenbestez, HKEEK ez du aurkeztutako kontabilitatean erregistratu gabeko hauteskunde gasturik ba ote den egiaztatu, ez eta alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugaketak betetzen ez dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren ere.

### I.2 LEGERIA BETETZEA

- Euskal Herria Bilduk (EH Bildu) 5.398,43 euroren hauteskunde gastuen ordainketak hauteskundekoa ez den kontu batetik egin ditu, ELHLren 142.1 artikulua urratuz.
- Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) alderdiak 653,40 euroren ordainketa egin du hauteskundekoa ez den kontu batetik prentsan publikotasuna emateagatik, ELHLren 142.1 artikulua urratuz
- Euzko Alderdi Jeltzalea eta Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE) alderdiek hala eskatuta, Euzko Jaurlaritzak bigarren aurrerakinaren ordainketa 2016ko abenduaren 29an egin du; ordea, ELHLren 144. artikuluen 7. atalak agintzen du ordaintzeko epea 2016ko abenduaren 9an amaitzen zela. Bestetik, Alderdi Popularrak bigarren aurrerakina eskatu du 2016ko abenduaren 22an, egun horretan berean Ogasun eta Ekonomia Sailburuaren Agindu bidez ordaindu dena.

### I.3 DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA

Hauteskunde gastuen diru-laguntza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura egiten da, ELHLren 151.1 artikuluari jarraikiz; kopuruak 2016ko abuztuaren 8ko Agindu bitartez gaurkotu dira. Diru-laguntza ez da inola ere justifikatutako gastuak baino handiagoa izango, eta hauek ere ezingo dute 2016ko abuztuaren 17ko Aginduak finkatutako gastuen gehieneko muga gainditu.

Irizpide hauen arabera, hona hemen egoki justifikatutako gastuak, zorpetutako eta ordaintzeko dauden diru-laguntzak:

HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	JUSTIFIKATUTAKO GASTUAK	UKATUTAKO DIRU-LAGUN.	ORDAINDUTAKO AURRERAKINAK	ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZA
EAJ-PNV .....	1.584.938,24	1.576.381,71	1.486.511,89	89.869,82
EH Bildu .....	1.267.849,02	1.210.125,61	375.511,92	834.613,69
Elkarrekin Podemos .....	339.988,84	339.988,84	-	339.988,84
PSE-EE (PSOE) .....	1.300.484,46	882.717,30	794.445,60	88.271,70
PP .....	1.561.030,88	781.865,05	703.678,54	78.186,51
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.054.291,44</b>	<b>4.791.078,51</b>	<b>3.360.147,95</b>	<b>1.430.930,56</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Zorpetutako diru-laguntzak hautesleei modu zuzenetan eta pertsonalean egindako bidalketari dagokiona ez ezik, gainerako hauteskunde-gastuei dagokiena ere barne hartzen du, hurrenez hurren, II.3 eta II.4 ataletan zehaztu direnak. Jasotako aurrerakinen xehapenak II.2 atalean barne hartu da.

IV. atalean hauteskundeetako kontabilitateen xehapena barne hartu da, aurkeztutako kontabilitateei egindako doiketak eta birsailkatzeak zehazten dituenak.



## II. DIRU-LAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA

### II.1 HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

Lurralde Historiko bakoitzeko Hauteskunde Batzordeek egindako hautetsiak izendatzeko akten arabera, EAEHBk baitetsitakoa, formazio bakoitzari dagozkion diru-laguntza publikoak zehazteko zenbagarri diren boto eta aulkien kopurua honako hau da:

HAUTAGAITZA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Botoak	Aulkiak	Botoak	Aulkiak	Botoak	Aulkiak	Botoak	Aulkiak
EAJ-PNV.....	42.327	8	238.581	11	117.260	9	398.168	28
EH Bildu.....	26.899	5	99.610	5	98.663	8	225.172	18
Elkarrekin Podemos.....	24.339	4	84.195	4	48.800	3	157.334	11
PSE-EE (PSOE) .....	19.489	3	66.506	3	40.425	3	126.420	9
PP .....	27.877	5	55.128	2	24.766	2	107.771	9
Gainerako hautagaitzak....	9.082	-	23.134	-	11.923	-	44.139	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>150.013</b>	<b>25</b>	<b>567.154</b>	<b>25</b>	<b>341.837</b>	<b>25</b>	<b>1.059.004</b>	<b>75</b>

Hautesle errolda, hautetsiak izendatzeko aipatutako akten arabera, honako hau izan da:

LURRALDE	ERROLDA
HISTORIKOA	GUZTIRA
ARABA.....	254.761
BIZKAIA .....	947.636
GIPUZKOA .....	581.022
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.783.419</b>

Hautesle Erroldaren Bulegoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoan pertsona bat gehiago dago erroldatua.

### II.2 DIRU-LAGUNTZEN AURRERAKINAK

ELHLren 144 artikulua 2. atalak agintzen du “Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetako diru-laguntzen aurrerakinak emango dizkiela Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu dituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei. Aurreratutako diru kopuruak ezin gaituko du alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-talde berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan jasotako diru-laguntzaren % 30a.

Aipatutako artikulua 7. atalak agintzen du behin hauteskundeak egin eta EAEHBren aurrean hauteskunde kontabilitatea aurkezteko epea amaitu ondorengo 15 egunetan zehar, Ogasuneko Sail arduradunak administratzaile orokorrei eta bigarren aurrerakin kontzeptuan, hautagaitzek eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera dagozkien diru-laguntzen zenbatekoaren % 90ari dagokion kopurua ordainduko diela, kasua balitz, aurreko atalean



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

aipatutako aurrerakina murriztuz. Aurrerakin hau jasotzeko alderdi politikoez jasotako aurrerakin guztien % 10a egiten duen banku abala aurkeztu behar dute.

Hona hemen alderdi politiko bakoitzaren arabeko diru-laguntzen aurrerakinak:

DIRU-LAGUNTZAREN AURRERAKINA			Euroak
HAUTAGAITZA	LEHENENGO AURRERAKINA	BIGARREN AURRERAKINA	GUZTIRA
EAJ-PNV .....	479.802,48	1.006.709,41	1.486.511,89
EH Bildu .....	375.511,92	-	375.511,92
Elkarrekin Podemos .....	-	-	-
PSE-EE (PSOE) .....	344.646,54	449.799,06	794.445,60
PP .....	274.690,53	428.988,01	703.678,54
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.474.651,47</b>	<b>1.885.496,48</b>	<b>3.360.147,95</b>

### II.3 HAUTESLEEI ZUZENEAN ETA PERTSONALKI BIDALTZEAGATIKO DIRU-LAGUNTZA

Alderdi politikoez diru-laguntza jasoko dute hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paper edo hauteskunde publizitateko bestelako zehazki elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde gastuengatik (posta bidalketa). Diru-laguntza hautesle bakoitzeko 0,23 eurorena izango da dena delako hautagaitzak aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean, betiere jarduera egiaz gauzatu dela eta ezarritako gastu muga gorde dela justifikatzen bada.

Honi dagokionez, EAEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bileran adierazi zuen hautesletzat hartuko dela hauteskunde propagandaren igorpena egin zaion oro.

Hona hemen hautagaitza bakoitzak gutxienez aulki bat eskuratu duten barrutietan egindako bidalketa zuzenen kopurua eta ezargarrria zaien gehiengo diru-laguntza:

ZUZENEKO IGORPENARI DIRU-LAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	DIRUZ LAGUNG. DIREN BIDALKETAK	GEHIENGO DIRU-LAG.	JUSTIFIKAT. EZARGARRIA DEN GASTUAK	DIRU-LAG.
EAJ-PNV .....	1.718.957	395.360,11	334.888,20	334.888,20
EH Bildu .....	1.714.230	394.272,90	391.947,40	391.947,40
Elkarrekin Podemos .....	1.714.230	394.272,90	105.699,42	105.699,42
PSE-EE (PSOE) .....	1.714.230	394.272,90	401.936,83	394.272,90
PP .....	1.714.230	394.272,90	310.204,75	310.204,75
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.972.451,71</b>	<b>1.544.676,60</b>	<b>1.537.012,67</b>

Diruz lagungarri diren bidalketa modura barne hartu dira alderdi politikoez egiaz justifikatu dituzten haiek, EAEHBren 1998ko irailaren 11ko interpretazioaren arabera.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.4 HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA

Hauteskunde propaganda bidaltzeagatik diru-laguntzaz gain, gainerako gastuak ere ondoko kopuruekin lagunduko dira eskuratutako boto eta ordezkari kopuruaren arabera, betiere 2016ko abuztuaren 8ko Agindu bidez onetsitako kopuruei jarraikiz:

- Hogeita sei mila, zazpiehun eta hirurogei eta bat koma laurogeita bederatzia euro (26.761,89 euro) Eusko Legebiltzarrean eskuratutako aulki bakoitzarengatik.
- Hautagaitza bakoitzak eskuratutako boto bakoitzagatik zero koma laurogeita hamar euro (0,90 euro), betiere gutxienez kideetako batek dagokion hauteskunde barrutian aulkia eskuratu badu.
- Berrogeita lau mila seiehun eta hiru, koma hamahiru euro (44.603,13 euro) hauteskunde barruti bakoitzeko, hauteskunde barrutian gutxienez aulki bat eskuratzen dutenei.

Honi jarraikiz, hona hemen alderdi politiko bakoitzak zenbateko diru-laguntza gehienez jasotzeko eskubidea duen:

HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA GEHIENGOA				Euroak
HAUTAGAITZA	AULKIAK	BOTOAK	ORDEZKARITZA	GUZTIRA
EAJ-PNV .....	749.332,92	358.351,20	133.809,39	1.241.493,51
EH Bildu .....	481.714,02	202.654,80	133.809,39	818.178,21
Elkarrekin Podemos .....	294.380,79	141.600,60	133.809,39	569.790,78
PSE-EE (PSOE) .....	240.857,01	113.778,00	133.809,39	488.444,40
PP .....	240.857,01	96.993,90	133.809,39	471.660,30
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.007.141,75</b>	<b>913.378,50</b>	<b>669.046,95</b>	<b>3.589.567,20</b>

Diru-laguntza hauek hautagaitza bakoitzak egiaz justifikatutako gastuek mugatzen dituzte eta honenbestez, kobratu beharreko diru-laguntza bi kopuruetan txikiena da, justifikatutako diru-laguntza edo gastua, alegia.

HAUTESKUNDE GASTUETARAKO DIRU-LAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	GASTUAK GUZTIRA	POSTA BIDALK. DIRU-LAGUNTZA	HAUTESK. GASTUAK	EZARGARRIA DEN DIRU-LAGUNTZA
EAJ-PNV .....	1.584.938,24	334.888,20	1.250.050,04	1.241.493,51
EH Bildu .....	1.267.849,02	391.947,40	875.901,62	818.178,21
Elkarrekin Podemos .....	339.988,84	105.699,42	234.289,42	234.289,42
PSE-EE (PSOE) .....	1.300.484,46	394.272,90	906.211,56	488.444,40
PP .....	1.561.030,88	310.204,75	1.250.826,13	471.660,30
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.054.291,44</b>	<b>1.537.012,67</b>	<b>4.517.278,77</b>	<b>3.254.065,84</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Aurreko taulan jasotako guztizko gastuak bat datoz alderdiek aurkeztutakoekin eta horiei IV. atalean adierazitako doiketak ezarri zaizkie.

Zuzen justifikatutako gastu guztietatik propagandaren igorketa zuzen eta pertsonalagatik jada diruz lagundutako gastuak murriztu dira. Modu honetara, gainerako gastuak aurreko taulan zehaztutako jasotzeko kopuru gehienekoarekin alderatzen dira eta kopuruetan txikien den hura laguntzen da diruz.

## II.5 GASTUEN GEHIENEZKO MUGA

Hautagaitza EAEn diren hiru hauteskunde barrutietatik bakar batean aurkeztu duten alderdi politikoentzako barrutien arabera hauteskunde gastuek ezingo dituzte ondoko taulan zehaztutako kopuruak gainditu:

	Euroak
ARABA .....	287.582,33
BIZKAIA .....	582.152,67
GIPUZKOA .....	427.949,73

Aulkiren bat lortu duten alderdi guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hauteskunde barrutietan aurkeztu dira eta honenbestez, hauteskunde gastuen muga, posta bidezko bidalketa kontzeptuan diruz lagundutako gastuak murriztu ondoren 1.297.684,73 eurorena izango da.

Alderdi politikoetatik batek ere ez du muga hau gainditu.

Gainera, ELHLren 75 eta 81 artikuluek mugak ezartzen dituzte baimendutako merkataritza eremuetan eta prentsan eta irratan publikotasun gastuetarako. Biek ere, aurrez adierazitako kopuruaren gainean % 20ko muga ezartzen dute.

Ondoko taulak alderdi politiko bakoitzak gastu kontzeptu hauetan egindako gastuak eta aurkeztu diren barrutiekiko ezargarri zaizkien mugak erakusten ditu:

HAUTAGAITZA	KANPOKO PUBLIZITATEA		PUBLIZITAT., PRENTSA ETA IRRATIA	
	Muga	Gastuak	Muga	Gastuak
EAJ-PNV .....	259.536,95	204.533,64	259.536,95	239.752,36
EH Bildu.....	259.536,95	10.516,80	259.536,95	104.985,93
Elkarrekin Podemos .....	259.536,95	-	259.536,95	38.173,53
PSE-EE (PSOE) (*).....	259.536,95	149.084,70	259.536,95	180.311,78
PP.....	259.536,95	142.772,02	259.536,95	229.007,09
<b>GUZTIRA</b>		<b>506.907,16</b>		<b>792.230,69</b>

(\*) Prentsa eta irratan egindako publizitate gastuetan hauteskunde kontabilitatean jaso gabeko 653,4 euro barne hartu dira, hauteskundekoa ez den kontu batetik ordaindu direnak.



### III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK

1.- ELHLren 151.2 artikulua dio “gainera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paperak edo hauteskunde publizitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde gastuak hautesle bakoitzeko 0,23 euroekin laguntzen dira diruz, dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean”.

Nolanahi dela ere, ELHLren inongo artikulutan ez dira kontzeptu honen izenean egotzi behar diren gastuak zehaztu.

Artikulu honen interpretazioa AEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bilkuran aztertu zuen eta hautesle bakoitzeko diru-laguntza zer den eta gastu horiek nola justifikatu behar diren deskribatu zuen; ordea, ez zuen zein gastu barne har daitezkeen finkatu.

Komenigarria litzateke, berebat, ELHLk bereizten dituen kontzeptuetan aintzat hartu beharreko gainerako hauteskunde gastuen izaera garatu eta zehaztea, eta bereziki, mugatutako gastuei aipamen egiten dien haiek: kanpoko publizitatea eta prentsa eta irratikoa; arautze horretan jasoko da, gainera, informazioaren teknologia berrien erabilerari eman behar zaion tratamendua (web orriak, aldizkari digitalak...).

**Diru-laguntza bati lotuak dauden gastuak zorrotzago arautu behar dira, egungo ziurgabetasuna saihestu eta finkatutako legezko mugaketa egiaztatzeko horien izaeraren gaineko zalantza oro baztertu ahal izateko.**

2.- Alderdi politikoei hornitzaile bakar batekin kontratatutako gastuen bolumen izugarria dute. Gastuen, eta honenbestez, jasotako diru-laguntzen zenbatekoa aintzat hartuta, komenigarria litzateke alderdi politikoei ekonomikoki abantailatsuen den eskaintza hautatzea bermatuko duten moldeak finkatzea aitortutako gastuen bolumenaren gainean garrantzia duten eragiketetik, dela banakako zenbatekoagatik dela hornitzaile bakar batean metatzeagatik. Prozedura horrek agiri bidez modu egokian egiaztatzea bideratuko duten beharrezko neurriak besarkatu beharko litzuzke.

3.- Elkarrekin Podemos eta Alderdi Popularrak, hurrenez hurren, 15 eta 1 eguneko atzerapenez jakinarazi diote EAEHBri hauteskundeetako kontu korrontearen irekiera ELHLren 141.1 artikuluan zehaztutako epearekiko, zeinak agintzen duen kontua ireki eta hurrengo 24 orduetan jakinarazi behar dela.

4.- Alderdi politikoei hauteskunde kontabilitateak aurkeztean eta euskarri modura azaltzen dituzten ziurtagirietan, datozen deialdiei dagokienez zuzendu beharreko hainbat alderdi ikusi ditugu:



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Aurkeztutako ordainagiriek garbi jaso behar dute gastua zein datetan eta zein kontzepturekin egin den. Zerbitzuaren edo materialen horniduraren emakida data fakturaz bestelakoa baldin bada, data adierazi behar da.
- Hauteskunde gastuen kontabilitateak eragiketa bakoitzaren kontzeptuen deskribapen zehatza jaso behar du, ELHLren 140. artikulua agintzen duen moduan.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK

Ondotik aurkeztuko diren hauteskunde-kontabilitateak hautagaitzek EAEHBri igorritakoak dira; HKEEK bereizi egin ditu mugaketei loturiko kontu-sailtakoak diren gastuak eta jaso beharreko diru-laguntzenak direnak.

Diru-sarrerak homogeneousatzearen, diru-laguntza erregistratu ez duten kontabilitateetan jasoko dutenaren balioespen bat sartu da eta diru-sarreretan barne hartu dira alderdiaren ekarpenak hartzekodunetan erregistratu ziren haietan.

Diruz lagungarri ez diren gastuak aparteko kontzeptuan jaso dira eta dagozkion kontuen ondotik zerrendatu.

##### IV.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA

		Euroak	
Langileria-gastuak .....	-	Diru-laguntzaren aurrerakina .....	1.486.511,89
Errentamenduak .....	4.290,66	Jasotzeko dagoen diru-laguntza .....	89.869,82
Profesional independenteen zerbitzuak .....	-	Alderdiaren ekarpena .....	710.000,00
Garraioak .....	-		
Aseguru sariak .....	2.812,97		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	104,50		
Publizitatea prentsa-irratian .....	239.752,36		
Kanpoko publizitatea .....	204.533,64		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	629.711,61		
Bestelako zerbitzuak .....	168.389,66		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak .....	334.888,20		
Finantza gastuak .....	454,64		
<b>GASTU SUBENTZIONAGARRIAK</b>	<b>1.584.938,24</b>	<b>JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK</b>	<b>2.286.381,71</b>
Gastu ez subentzionagarriak .....	-	Justifikatu gabeko sarrerak .....	-
<b>KONTABILIZATUTAKO GASTUAK</b>	<b>1.584.938,24</b>	<b>KONTABILIZATUTAKO SARRERAK</b>	<b>2.286.381,71</b>
Diruzaintza .....	4.863,93	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	400.000,00
Zordunak .....	1.096.579,23	Hartzekodunak .....	(0,31)
	<b>2.686.381,40</b>		<b>2.686.381,40</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU

		Euroak	
Langileria-gastuak .....	8.697,00	Diru-laguntzaren aurrerakina .....	375.511,92
Errentamenduak .....	101.820,63	Jasotzeko dagoen diru-laguntza .....	834.613,69
Profesional independenteen zerbitzuak .....	34.405,87	Alderdiaren ekarpena .....	900.000,00
Garraioak .....	1.533,50		
Aseguru sariak .....	-		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	247,97		
Publizitatea prentsa-irratian .....	104.985,93		
Kanpoko publizitatea .....	10.516,80		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	394.046,01		
Bestelako zerbitzuak .....	219.647,91		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak .....	391.947,40		
Finantza gastuak .....	-		
<b>GASTU SUBENTZIONAGARRIAK</b>	<b>1.267.849,02</b>	<b>JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK</b>	<b>2.110.125,61</b>
Gastu ez subentzionagarriak .....	13.015,28	Justifikatu gabeko sarrerak .....	-
<b>KONTABILIZATUTAKO GASTUAK</b>	<b>1.280.864,30</b>	<b>KONTABILIZATUTAKO SARRERAK</b>	<b>2.110.125,61</b>
Diruzaintza .....	46,05	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	-
Zordunak .....	834.613,69	Hartzekodunak .....	5.398,43
	<b>2.115.524,04</b>		<b>2.115.524,04</b>

Ez dira gastu subentzionagarritzat jo ondoko gastuak, kontzeptuak ez baitaude ELHLren 146. artikulua bereizten dituenen artean jasoak:

- Mitinetarako espektakuluen kontratazioa, 7.296,30 euroren zenbatekoan.
- Aperitibo eta edari gastuak, 1.111 eurorenak.
- Joan-etorri eta bidaietarako gastuak, 4.607,98 eurorenak.

“Bestelako zerbitzuak” atalean jaso dira “hauteskunde-igorpenengatiko gastuak” atalean jasotako 2.436,94 euro, kontzeptu horri ez dagozkionak.

Bestetik, birsailkatu egin dira “prentsa-irratiko publizitatean” erregistraturiko gastuak, zeinak “errentamendu” eta “bestelako publizitate eta propaganda” gastuei dagozkien, 4.035,35 euroren zenbatekoan. Gainera, “bestelako publizitate eta propaganda”n erregistraturiko 10.516,80 euroren faktura bat “kanpoko publizitatea” atalean birsailkatu da.

Hartzekodunen zenbatekoak atxikipen kontzeptuan Gizarte Segurantzarekiko 2.564,88 euroren saldoak eta Ogasun Publikoarekiko 2.833,55 eurorenak jasotzen ditu, hauteskundeetakoa ez den beste kontu batetik ordaindu direnak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### IV.3 ELKARREKIN PODEMOS

		Euroak	
Langileria-gastuak .....	27.526,75	Diru-laguntzaren aurrerakina .....	-
Errentamenduak .....	33.947,32	Jasotzeko dagoen diru-laguntza.....	339.988,84
Profesional independenteen zerbitzuak .....	38.848,35	Alderdiaren ekarpena.....	348.770,30
Garraioak .....	1.511,44		
Aseguru sariak .....	-		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	482,52		
Publizitatea prentsa-irratian .....	38.173,53		
Kanpoko publizitatea .....	-		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	69.433,28		
Bestelako zerbitzuak.....	24.366,23		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak .....	105.699,42		
Finantza gastuak .....	-		
<b>GASTU SUBENTZIONAGARRIAK</b>	<b>339.988,84</b>	<b>JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK</b>	<b>688.759,14</b>
Gastu ez subentzionagarriak .....	3.388,00	Justifikatu gabeko sarrerak.....	-
<b>KONTABILIZATUTAKO GASTUAK</b>	<b>343.376,84</b>	<b>KONTABILIZATUTAKO SARRERAK</b>	<b>688.759,14</b>
Diruzaintza .....	4.572,83	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	-
Zordunak .....	340.809,53	Hartzekodunak .....	0,06
	<b>688.759,20</b>		<b>688.759,20</b>

Ez da diruz lagungarritzat jo coach zerbitzuaren 3.388 euroren faktura bat, ez baitzaie ELHLren 146. artikulua jasotzen dituen kontzeptuei egokitzen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### IV.4 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

		Euroak	
Langileria-gastuak .....	-	Diru-laguntzaren aurrerakina .....	794.445,60
Errentamenduak .....	5.445,00	Jasotzeko dagoen diru-laguntza .....	88.271,70
Profesional independenteen zerbitzuak .....	-	Alderdiaren ekarpena .....	962.323,08
Garraioak .....	111.758,31		
Aseguru sariak .....	1.819,59		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	-		
Publizitatea prentsa-irratian .....	179.658,38		
Kanpoko publizitatea .....	149.084,70		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	329.505,32		
Bestelako zerbitzuak .....	121.276,33		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak .....	401.936,83		
Finantza gastuak .....	-		
<b>GASTU SUBENTZIONAGARRIAK</b>	<b>1.300.484,46</b>	<b>JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK</b>	<b>1.845.040,38</b>
Gastu ez subentzionagarriak .....	6.485,16	Justifikatu gabeko sarrerak .....	-
<b>KONTABILIZATUTAKO GASTUAK</b>	<b>1.306.969,62</b>	<b>KONTABILIZATUTAKO SARRERAK</b>	<b>1.845.040,38</b>
Diruzaintza .....	-	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	-
Zordunak .....	538.070,76	Hartzekodunak .....	-
	<b>1.845.040,38</b>		<b>1.845.040,38</b>

Ez da diruz lagungarritzat jo autobus bidezko bidaiarien garraio zerbitzuari dagokion 6.485,16 euroren faktura bat, ez baitzaie ELHLren 146. artikulua jasotzen dituen kontzeptuei egokitzen.

“Beste zerbitzu batzuk” atalean erregistraturiko hauteskundeetako igorpenen hiru faktura, guztira 10.688,93 eurorenak, “hauteskunde-igorpenengatiko gastuak” atalean birsailkatu dira. “Bestelako zerbitzuak” atalean jaso dira “hauteskunde-igorpenengatiko gastuak” atalean jasotako 3.025 euro, kontzeptu horri ez dagozkionak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV.5 ALDERDI POPULARRA

		Euroak	
Langileria-gastuak .....	50.877,75	Diru-laguntzaren aurrerakina .....	703.678,54
Errentamenduak .....	26.319,23	Jasotzeko dagoen diru-laguntza .....	78.186,51
Profesional independenteen zerbitzuak .....	558.684,73	Alderdiaren ekarpena .....	816.013,15
Garraioak .....	19.412,21		
Aseguru sariak .....	4.478,66		
Banku zerbitzuak eta antzekoak .....	3.193,58		
Publizitatea prentsa-irratian .....	229.007,09		
Kanpoko publizitatea .....	142.772,02		
Bestelako propaganda eta publizitatea .....	4.905,95		
Bestelako zerbitzuak .....	208.559,13		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak .....	310.204,75		
Finantza gastuak .....	2.615,78		
<b>GASTU SUBENTZIONAGARRIAK</b>	<b>1.561.030,88</b>	<b>JUSTIFIKATUTAKO SARRERAK</b>	<b>1.597.878,20</b>
Gastu ez subentzionagarriak .....	-	Justifikatu gabeko sarrerak .....	-
<b>KONTABILIZATUTAKO GASTUAK</b>	<b>1.561.030,88</b>	<b>KONTABILIZATUTAKO SARRERAK</b>	<b>1.597.878,20</b>
Diruzaintza .....	6.101,76	Kreditu erakundeekiko zorrak .....	473.813,18
Zordunak .....	507.174,52	Hartzekodunak .....	2.615,78
	<b>2.074.307,16</b>		<b>2.074.307,16</b>

Hartzekodunen zenbatekoak alderdiak egindako finantza gastuen aurreikuspena barne hartzen du.





## ABREVIATURAS

CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
JECA	Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
LEPV	Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia.

## INTRODUCCIÓN

De acuerdo con el artículo 149.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas debe emitir un dictamen motivado, sobre las contabilidades electorales y sobre la justificación de los ingresos y gastos en ellas incluidos.

El trabajo, conforme a la normativa vigente, ha consistido en la verificación de las cuentas electorales de las formaciones políticas que obtuvieron escaños en las elecciones al Parlamento Vasco celebradas el 25 de septiembre de 2016, o que solicitaron adelanto de la subvención electoral, en relación con los siguientes aspectos:

- 1.- El cumplimiento de las condiciones que establece el artículo 140 de la LEPV sobre la forma de presentación de la contabilidad de ingresos y gastos electorales.
